

VI. DANTZARI FESTA HERNANIN

Zuberoako maskarada eta Zangotzako dantzak aste osoko ekitaldien artean

■ Astelehenetik igandera egingo da aurtengo dantzari festa ■ Biteri kultur etxean Euskal jantzien erakusketa egongo da astelehenetik ostegunera, 17:00etaik 20:00etara.



Dantzari txikiak Biteri Plazan; aurtien ere aterako dira larunbat arratsaldean. (Argazkia: Biyok)

AURTEN dira sei urte Hernanin dantzari festa egiten dela. Pepi Arrospide eta Luis Parrondo izan ziren bultza zutenak, Oñatiko dantzari festa ikusi ostean. Hasiera hartan asteburuko festa izaten zen, baina dagoeneko aste osokoa egiten da.

ZANGOTZA ETA LIGITIK
Ekitaldi esanguratsuenak asteburuan izango dira. Zangotzako dantza taldeak Naparroako dantzak egingo ditu frontoian, larunbat gauean. Ligiko zuberoarrek, berriz, kalez kale egingo dute maskarada, igande eguerdian, bidean tokatzen denari adarra joz; arratsaldean Tilosetan ari-tuko dira. □

EGITARAUA

Apirilak 23, astelehena

■ 17:00etatik 20:00etara: Euskal jantzien erakusketa Biterin (astelehenetik ostegunera).

Apirilak 24, asteartea:

■ 15:30etan: Ikasleentzat hitzaldia Axen Egañak. *Baserritarren jatzera.*

■ 19:30etan: Hitzaldia Javier Juanesek. *Udaberria* (Diapositibekin).

Apirilak 26, osteguna:

■ 19:00etan: Hitzaldia Ramon Garciak. *Baserritarren jatzera.*

Apirilak 27, ostirala:

■ 19:00etan: Iparraldeko euskal dantzen ikastaroa. Patxi Perezek (nahi duenari irekia).

Apirilak 28, larunbata:

■ 12:00etan: Hernaniko musika eskolakoekin kalejira.

■ 17:00etan: Dantzari txikien emanaldia Biteri Plazan (euria egingo balu kiroldegian).

■ 22:30etan: Zangotzako Rocamador Dantza taldea. Kiroldegiko pelotalekuan.

Apirilak 29, igandea:

■ 11:00etan: Kalejira musika eskolakoekin.

■ 11:45etan: Preso eta errefuxiatuei omenaldia Plazan.

■ 12:00etan: Zuberoako (Ligi herrikoak) Maskarada kalez kale.

■ 17:00etan: Tilosetan maskarada.

■ 19:30etan: Erromeria Tilosetan Musika eskolako taldeekin.

Ibilgailuaren 'biñeta' maiatzaren 4erako ordaindu behar da

■ Hernanin 9.164 ibilgailu daude zerga ordaindu beharrekoak ■ 127.739.310 pta aterako dira.



Honen jabea gutxixeago ordainduta ere pasako da.

KOTXEA, kamioa, motorra... motor dun edozein ibilgailu izateagatik urteko zerga ordaindu behar izaten zaio udalari. Ibilgailuak gero eta zilindrada haundiagoa izan zerga ere haundiagoa izaten da, eta udal-etik udalera ere aldea dago.

dirua duela ziurtatzea, zerga ordaintzeko azken eguna izaki errekarua ordaindu beharko bailuke bestela. Bankuan eskurara ordaintzen duenak ere maiatzaren 4a baino lehen egin behar du diru sarrera.

ESKURA EDO DOMI-ZILIATUTA

Biñeta domiziliatua daukanari maiatzaren 4ean (azken egunean) kenduko zaio zergaren balioa. Udaletxetik esan digutenez komenigarria da jendeak

BAJAK 'TRAFIKON'

Ibilgailu bat herriz aldatu behar bada (jabea herriz aldatu delako, kotxea saldu duela-ko...) aldaketaren berri trafikon eman behar da. Trafiko bera da gero udaletxeei aldaketaren berri ematen diena. □

■ ESKUBALOIA -GIPUZKOAKO KOPA-

Bera Berak partidua atzeratzea eskatu eta bihar jokatu dute

■ Ordua zehaztu gabe dago, baina, goizean izango da
■ Kopako lehen partidua da: Hernani-Bera Bera.

Telemar
ITXASTELE S.L.

Telyco denda
Elkano 13, HERNANI
☎ 943 33 26 00

Eskaintza **119.000 pta.**

SERIE MEGA ATHLON: Asus A7V plaka, CD irakurlea x52 LG, Sounblaster 128 PCI soinu txartela, Barne Modem a 56 kb, Genius Scroll arratoia, PS/2 teklatura, 240 Wko altabozak, 15" Daewoo Monitorea, 1000 Mhz tako K7 prozesadorea.

Entitate finantzieroen 20.000 pta eta Eusko Jaurlaritzaren 25.000 pta deskontatu ondorengo azken prezioa. %16 BEZ a sartu gabe.

⇒ 'Telefonika'ko banatzailea
⇒ Movistar
⇒ Zentralitak
⇒ 'Centrex'
⇒ Faxak
⇒ Telefono altak
⇒ Telefonía mugikorra
⇒ "Via digital", inalanbrikoak,...

Xenon
Computer



Eguneko Menua
Pintxoak
Kazolatxoak
Ogitartekoak

Marieluts kalea 2 - Tel. 943 55 01 58
Hernani (Gipuzkoa)



Antziola-Motor
Zerbitzu Ofiziala

► Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
► Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
► Aseguruen gestioa
► Finantziarioak
► Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

■ BOLA

Bihar bukatuko da Ereñotzun Gipuzkoako erregularitate txapelketa

■ Euskal Herriko txapelketarako Gipuzkoako ordezkariak erabakiko dira ■ Bihar igandea, 9:30etatik 11:30etara eta 16:30etatik 17:30etara.



Antonio Miner Ereñotzuko bolatokian atzo.

URTARRILAK 21ean hasi zen Gipuzkoako erregularitate txapelketa Altzan; bihar amaituko da Ereñotzuko bolatokian. 10 herri ezberdinetan izan dira tiradak, eta biharkoak erabakiko du txapelketako sailkapena.

Biharko tirada, erregularitate txapelketan sartzen bada ere,

eguneko *konkurtsa* ere izango da. Biharko lehenengoentzat sariak izango dira.

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Erregularitate txapelketa hau, Gipuzkoa mailako txapelketarik garrantzitsuena da.

Irabazlea urteko Gipuzkoako bolarik onena izaten dela esan daiteke. Gainera, txapelketa honetan erabakitzen dira, ekainean Araban jokatu den, Euskal Herriko bola txapelketarako herrialdeko ordezkariak. Erregularitateko 9 lehenengoek eskuratzen dute bertan parte hartzeko txartela. Guztira 15 gipuzkoar izango dira txapelketa nagusian. Erregularitateatik ateratakoak, Gipuzkoako txapelketako (2 egunetan jokatzeko) 2 lehenengoak, bikotekako txapelketako bikote irabazlea, eta lehendakari txapelketako 2 onenak.

BI HERNANIAR AUKEREKIN

Erregularitateko azken tiradara, bi hernaniar iritsi dira, 9 lehenengotan sartzeko aukerarekin. Joxe Ugalde (Elur Txorikoa) 7garren dijoa, guztira 428 brilarekin. Antonio Miner (Ur Miakoa), berri, 10garren, 427 brilarekin. Brila gutxiren bueltan dago hainbat bolari; beraz, azken tirada honetan asko dago jokoan. □

“Salbuespen egoera salatze” ekitaldia egingo du EH-k, bihar, igandea, Tilo setan

■ Eguerdiko 12:00etan izango da ■ Karmele Aierbe eta Joseba Permach (EHko Gipuzkoako zerrendakideak) hitz egingo dute ■ Gero, giza katea egingo dute.

EUSKAL Herriarrok alderdiak Kronikara bidalitako prentsa ohar batek dio, “1975ean Madrilgo gobernuak seigarren salbuespen egoera” ezarri zuela. EHren ustetan oraindik ere mantentzen da salbuespen egoera hori, beste mota bate-

koa bada ere. Diote “1975ean zortzi hildako eta hiru mila atxilotu egon zirela Bizkaian eta Gipuzkoan, larogeita hamar egunetan”. Iaz, 1.500 kontrol jarri omen zituzten errepideetan eta 30.000 pertsona erretenitu. Azken

aldian 164 euskal herritar atxilotu dituztela dio prentsa oharra eta 33k torturak salatu dituztela.

Egoera hau salatze egingo dute ekitaldia, bihar, igandea, eguerdiko 12:00etan Tilo setan. □

TXANTXANGORRI ETA UR-MIA ELKARTEETAN AFARIAK

Apirilaren 30ean 50garren urteurreneko afaria Txantxangorri

■ Bazkideak apuntatzeko azken eguna apirilak 23 astelehena ■ Ur Mia Elkarteko afaria maiatzak 5ean.

TXANTXANGORRI Elkar-teak 50garren urteurrena ospatuko du. Ospakizunerako ekitaldiak, bihar hasiko dira. Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 17:00ak arte, Gipuzkoako eta elkarte mailako Plater Tiraketa izango da Santa Barbaran. Urteurreneko afaria, apirilaren 30ean izango da, eta bertara joan nahi

duten bazkideek, astelehenerako eman beharko dute izena.

UR MIA ELKARTEA

Ereñotzuko elkarteak, maiatzaren 5ean izango da, urteroko bazkide afaria. Joan nahi duten bazkideek, elkarte bertan eman behar dute izena. □

■ HITZ BITAN



Hernaniar gazteak erasoan aurreko partidu batean.

✓ FUTBOLA-GAZTEEN LIGA NAZIONALA

Hernani-Alaves gaur arratsaldean Zubipen. Goi mailako talde baten filialaren aurka neurtuko dituzte indarrak hernaniar gazteek. Gaur arratsaldeko 15:30etan hasita.

✓ ZINEA

‘Prueba de vida’ ikusi ahal izango da gaur eta bihar Biterin. Gaur bi emanaldi izango dira, 19:30etan eta 22:30etan. Bihar, igandea, 19:30 etan izango da.

✓ BERTSOLARITZA

Gipuzkoako txapelketako finalaurreko saioa gaur Urnietako Sarobe Aretoan. Bi hernaniar izango dira kantuan gaur Urnietan: I. Zelaia eta A. Zerain. Beste lau bertsolariak L. Otamendi, I. Epelde, N. Elustondo eta A. Agirre izango dira. Gaueko 22:30etan. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶Taxiak: 943 550093
▶Udaltzaingoa: 943 333288
▶DYA: 943 464622
▶Autobusak 943 556662
▶Anbulatorioa: 943 557750
▶Jokalari anonimoak 943 331103

✚ FARMAZIAK

▶Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933
▶Gauetz: Vidaur Lasarte, Jaizkibel Plz.2 ☎ 943 362652

BIKAIN

OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti Bikain...

Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI

OIALUME BILTOKIA.

EUSKAL GIROA

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia 19:30etatik aurrera.

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

ARALAR TABERNA

ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

Zure publizitatea

HERNANIKO KRONIKAn

☎ 943 330899

ADARRAGA

Konfitegia Pasteldegia

Urbietta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

Adarraga

HERNANI (Gipuzkoa)